

Andréi Tarkovskiren lezio galduak #1

abenduak 6 | Tabakalera

Zineak pentsamenduak adierazteko bere forma propioa aurkitu behar du. Zineari berari soilik dagokion modu bat. (Andréi Tarkovski)

Elías Querejeta Zine Eskolak berriro hartuko du bere programa publikoa **Andréi Tarkovskiren lezio galduek #1** jardunaldiarekin, Andréi Tarkovskik Sobietar Batasuneko hainbat lekutan 1975etik 1981era bitartean emandako ikasgaiak berreskuratzeko asmoa duen programaren lehen saioarekin. Ohiz kanpoko materiala da, ia 90 orduko soinu-grabazioz osatua, Masha Chugunovaren artxibo pertsonalean aurkitu dena, zeinak urtetan lagundu baitzion zinemagileari bere klaseetan eta hitzaldietan.

SESBeko Goi Mailako Zinematografia Ikastaroan 1977an emandako klasetan jasotako grabazioak entzungo diren lehen saio honetan, bertarutzen den jendeak zinemagileari entzun ahal izango dio ***Ispilua*** (*Zérkalo*, 1975) filmaren sorkuntza-prozesuaren zenbait alderdiri heltzen: proiektuaren sorrera, bere izaera biografikoa, aktoreekiko harremanak, gidoiaren idazkuntza... Gainera, Tarkovskik beste gai batzuetaz ere mintzatzen da, esaterako: artistaren erantzukizun etikoa; zinemagile ofizioaren zertzeladak, hurbileko beste arte batzuen bitartez aztertuak, hala nola margolaritza, literatura edo musika; berak miresten zituen beste zenbait zinemagileren ezaugarri nagusietako batzuen analisia (hala nola Robert Bresson, Luis Buñuel, Aleksander Dovjenko eta Michelangelo Antonioni); eta

zinema-lanetan errealtatearen eta fikzioaren artean dagoen harreman konplexua.

Lehen topaketa honetan, **Andréi Andréievich Tarkovski** egongo da, zinemagilearen semea eta haren izena daraman nazioarteko institutuko zuzendaria, bere esperientzia kontatuko duena bere aitaren bizitzaz eta obraz. Ondoan izango ditu: **Harkaitz Cano**, gidoigilea, saiakeragilea eta idazlea, Andréi Tarkovskiri gutun bat zuzenduko diona; **Xabier Erkizia**, musikaria eta soinu-artista, ikus-entzunezko instalazio bat sortu duena *Ispiluaren* audio bandatik abiatuta; **Ángel Gutiérrez**, Chejov antzerki taldearen zuzendaria eta Tarkovskiren kolaboratzaile estua film beraren filmaketan; **Menchu Gutiérrez**, eleberrigilea, poeta, saiakeragilea, eta Joseph Brodskyren itzultzailea; **Ruxandra Kyriazopoulos-Berinde** arkitektoa, arkitektura eta zinemagilearen lanen arteko harremanak arakutzen dituen tesi baten egilea, zeina Tarkovskik espazio fisikoaren eta zinema-hizkuntzaren artean ezarri zituen elkarrizketa eta metafora posibleak aztertuko dituena, Tabakalerako Z Aretoan kokatutako den filman ikus daitekeen *dacharen* (landetxearen) plano baten bitartez; eta **José Manuel Mouriño**, saiakeragilea, zinemagilea, Tarkovski Institutuaren estatuko ordezkaria, eta berreskuratutako soinu erregristroen ikertzaileetako bat.

Programa

Lehen zatia (Z Aretoa)

10:30 - 10:45 Aurkezpena: Carlos Muguero (EQZEren zuzendaria), Andréi Andréievich Tarkovski eta José Manuel Mouriño.

10:45 - 11:15 "Bere garaian landetxea egon zen leku hutsa: *Ispiluaren dacharen barrena*". Ruxandra Kyriazopoulos-Berinde.

11:15 - 12:15 Soinu artxiboen lehen partearen entzualdia (Andréi Andréievich Tarkovski eta José Manuel Mouriñoren parte hartzearekin).

12:15 - 12:25 Atsedenaldia.

12:25 - 13:30 Soinu artxiboen bigarren partearen entzualdia (Ángel Gutiérrezen parte hartzearekin).

13:30 - 13:55 "Ispiluen poesia". Menchu Gutiérrez.

13:55 - 14:00 Lehen partearen itxiera.

Bigarren zatia (Z Aretoa)

16:00 - 16:05 Aurkezpena: Carlos Muguero eta Andréi Andréievich Tarkovski.

16:05 - 16:30 "Kandela batentzako sinfonia. Soinua eta *Ispilua*". Xabier Erkizia.

16:30 - 17:20 Soinu artxiboen hirugarren partearen entzualdia (Andréi Andréievich Tarkovski eta José Manuel Mouriñoren parte hartzearekin).

17:20 - 17:30 Atsedenaldia.

17:30 - 18:30 Soinu artxiboen laugarren partearen entzualdia (Ángel Gutiérrezen parte hartzearekin).

18:30 - 18:55 "Gutun bat ispilua beste aldetik". Harkaitz Cano.

18:55 - 19:00 Jardunaldiaren amaiera.

Proiektzioa (Zinea - 1 Aretoa)

20:00 *Dirua* (L'Argent. Robert Bresson, 1983). 83 min. JBGA (3,5€)

Hurrenez hurreneko topaketen bidez, **Andréi Tarkovskiren lezio galduak #1** jardunaldira bertaratzen diren lagunek aukera izango dute errusiar maisuaren zinema-ikasgaietan entzule gisa parte hartzeko. Saio horiek ez dira mugatuko erregistroak entzutera bakarrik. Nahiz eta zaharberritutako grabazioen edukiak ezarriko dituen topaketen izaera, saio horietako bakoitza esperientzia edo azterketa-kasu independente bat bezala formulatzen da. Horrela, proiektuak Andréi Tarkovskiren ikasgaietarako hurbilpen batzuk taxutuko ditu, zeintzuetan era askotako espezialistek, ikertzaile eta diziplina anitzetako artistek proposatuko baitituzte errusiar zinemagileak formulatutako ideien eta erlazioen analisi paraleloak.